



# Hamar proposamen CCOO sindikalgintza borrokalari, klaseko eta demokratiko baterako berreskuratzeko

CCOOk sei kontseilari ia 800.000 euroz jabetu dira, Caja Madrideo eta Bankiako 15,5 milioi euroko lapurretan parte hartuz. Honek haserre handia piztu du gure sindikatuko lerroetan. **IrabaziCCOO langileentzak Manifestuan** genion bezala, langileen eta CCOOko afiliatuen aurkako irain larria da Toxok eta Komisio Ejekutibo Konfederalak Caja Madrideo eta Bankiako egoera ezagutzen ez zutela esatea.

**IrabaziCCOOk** uste dugu beharrezkoa dela gure sindikatuaren birsorkuntza eta eraiki zuten ezaugarriak berreskuratzea. Helburu hau lortzeko hamar puntutako ekintza plana proposatzen dugu:

- 1 Alde batera uztea porrot egiten duen akordio sozialaren estrategia sindikala eta patronalari egindako kontzesioak, sindikalgintza borrokalari, klaseko eta demokratikoa berreskuratzeko.** CCOOk borroken bateratzea bultzatu eta lanpostu guztiak defendatu behar ditu. Enpleguaren suntsiketa negoziatzeari ez! CCOOk murrizketa eta herstura politiken aurka mobilizatu behar du kontsekuente-ki, mugimendu sozialekin elkartzuz.
- 2 Komisio Ejekutibo Konfederalaren dimisioa.** Agintari konfederal maximoak gure sindikatuaren ospe-galtzearen eta sinesgarritasun galeraren arduradun politiko maximoak dira, eta egoerak okerrera egin du tarjeta black delakoen erabileraren eskadandaluagatik.
- 3 Ezohiko Biltzarra.** Sindikatu guztian eztabaida demokratikoa burutu behar da afiliatuei protagonismoa emanaz. Honek ezohiko biltzar batekin amaitu behar du oinarririk zuzenean aukeratutako ordezkariekin.
- 4 Errespetua CCOOko militantziari eta langileen batzarrei.** Sekzio sindikalek eta enpresa komiteek iniziatiba eraman behar
- dute hitzarmenak hobetzeko eta enpleguak defendatzeko borrokan (grebak eta mobilizazioak). Proposamen guztiek sekzio sindikalek eta langileen batzarrek onartuak izan behar dute. Sekzio sindikalak CCOOko funtsezko antolakuntzaren oinarria izatea berreskuratu behar da. Zuzendaritza organoek hauetan hartzen diren erabakiak bete behar dituzte. CCOOk ezin du sinatu akordiorik langile batzarren iritzia-aren aurka.
- 5 Ordezkari sindikalen kontrol demokratikoa:** hauek aukeragarriak eta ordezkagarriak izan behar dira. CCOOko liberatuak eta ardura duten karguak demokratikoki aukeratu behar dituzte enpresako, sektoreko edo tokatzen den eremuko afiliatuen batzarrek. CCOOko kargu guztiak ordezkagarriak izan behar dira eta aukeratu zutenen eskuetan egongo dira.
- 6 CCOOko arduradunek edozein langile bezala bizi behar dute.** Hauen soldata ezin da izan langile kualifikatu batena baino handiagoa (ezin da izan hileko 1.800 euro garbi baino gehiago). Ordezkaritza gastu guztiak ezabatu behar dira. CCOOko arduradun guztien

soldatak publikoak eta erakunde osoak eta langileriak ezagutuak izan behar dira.

**7** CCOO ezin da egon Estatuaren diru laguntzen menpe eta administrazio kontseilu guztiak utzi behar ditu. Gure aurrekontuak afiliatuen kuotetan eta langile klasearen laguntza ekonomikoan oinarritu behar dira. Gatazka guztietan Erresistentzia Kutxak eta enpresa guztietan diru-bilketak berreskuratu behar dira. Estatuaren eta patronalaren aurrean independentzia ekonomikoa lortzea da klaseko sindikalgintza bermatzeko modua.

**8** Ordu sindikalak ekintza sindikalerako dira. CCOOko ordezkariak ordu sindikalak langileen eskubideen alde borrokatzeko erabili behar dituzte. Enpresetako tabloietan argitaratu behar dira eta kontuak eman behar dira afiliatuen eta langileen aurrean.

**9** Respecto á democracia interna en CCOO. Basta de expulsións e sancións a afiliados de CCOO por motivos políticos e de opinión. Ningunha medida antidemocrática

máis (expulsións, disolución de Federaciós, secciones sindicais, etc.).

**10** CCOO klaseko sindikatua da, ez kudeaketa edo klase kolaborazioko sindikatu bat. Langileen eskubideak defendatzen ditu eta borroka egiten du gizartearen eraldaketaren alde sozialismorantz: Lan Kontrarreformaren eta Pentsio Kontrarreformaren ezabaketa • Zerbitzu sozialen murrizketei eta pribatizazioari ez • 1.100 euroko gutxieneko soldata • 35 orduko astea soldata murrizketarik gabe • ETTen debekua • Lan kontratu finkoak 15 egunetara • Kaleratze bidegabeen kasuetan langileak berhartzea derriortu • Denok osasun eta hezkuntza publikoa, duina, doakoa eta unibertsala izateko eskubidea • Etxe kaleratzeen debekua legez • Adierazteko, biltzeko eta antolatzeko eskubide demokratiko osoak • Atzerri Legearen indargabetzea • Bankaren nazionalizazioa langabezia masiboaren aurka borrokatzeko - Nazionalitateen erabakitze eskubidearen defentsa.

CCOOko tradizio borrokalariak defendatzen ditugun sindikalista eta afiliatuak ezin gara pasibo mantendu gure sindikatua hondamendira eramanez dezakeen egoeraren aurrean. CCOOko militantzia osoa CCOO berreskuratzera deitzen dugu, oinarritik eta parte hartzetik, langile klasearen kausa defendatzeko dena eman zuten Marcelino Camacho eta beste hainbat eta hainbat militanteren borroka programara.

**Arribistak eta ustelak kanpora!**

**Gora CCOO!**

**IrabaziCCOO**

